

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

97/2019 Foru Agindua, otsailaren 19koa, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia aldatzea

Apirilaren 11ko 245/2018 Foru Aginduak aldatu zuen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduan jasotzen da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lan poltsen arloan indarrean dagoen araudia.

Beharrezkoa da datorren enplegu eskaintza egin aurretik araudi horretako zenbait alderdi aldatzea, kontuan hartuta, bai merezimendu eta gaitasun printzipioak, bai eskaintzaren kudeaketa eraginkorragoa.

Badirudi enplegu publikora sartzeko kontuan hartu behar diren merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkakoa dela egungo araudiaren bosgarren artikulua, 1b) apartatuan jasotzen den aurreikuspena; izan ere, aurreikuspen horretan ezartzen da honakoak izango direla bigarrenak dei hurrenkeran: "Nahitaezko ariketa kanporatzaile gehien gainditu dituzten izangaiak, gainditutako ariketa horietan guztira lortutako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, nahitaezko ariketa kanporatzaileetatik lehenengoa bakarrik gainditu dutenen zerrenda bukatu arte".

Aurreikuspen hori kontraesanean dago merezimendu eta gaitasun printzipioekin, kontuan hartuta nahitaezko ariketei emandako puntuazioa: 10 puntu lehenengoari (teorikoa, plaza guztien eduki komuna eta plaza bakoitzaren eduki espezifikoa) eta 16 puntu bigarrenari (praktikoa, kasuan kasuko ariketa espezifikoa). Lehenengo ariketa gainditzeko, 5 puntu behar izango dira eta, 8 puntu, berriz, bigarrena gainditzeko.

Egungo sistemarekin, eta adibide gisa, honelako egoera bat gerta daiteke: lehenengo ariketan 5 puntu eta bigarren ariketan 7,5 puntu lortu dituen izangai baten aurretik egotea lehenetsun hurrenkeran lehenengo ariketan 5,5 puntu eta bigarrenean 2 puntu dituen pertsona bat.

Egoera horri objektibotasunez begiratuz gero, eta merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzeko, agerikoa da puntuazio hobea lehenengo ariketan (teorikoa eta plaza guztientzako zati komuna duena) bakarrik duenaren aurretik egon behar duela bi ariketetan guztirako puntuazio handiena lortu duen izangaiak.

Horregatik, beharrezkoa da egungo lan poltsen araudiaren bosgarren artikulua, 1b) apartatua aldatzea, eta ezartzea hurrenkerari bi ariketen guztirako puntuazioaren arabera izango dela.

Bestalde, beharrezkoa da lan poltsen indarraldia aldatzea, kontuan hartuta 2001ean egin zen eskaintzaz geroztik bi enplegu eskaintza egin direla (2007 eta 2016), eta, beraz, indargabeturik uztea 2007ko enplegu eskaintzaren aurreko lan poltsak.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Arabako Foru Aldundiko lan poltsak arautzen dituen apirilaren 11ko 245/2018 Foru Aginduak aldatu zuen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduaren eranskineko bosgarren artikuluko 1 b) apartatua, honela:

“b) Nahitaezko ariketa kanporatzaile gehien edo, ariketa bakarra izanez gero, zati gehien gainditu dituzten izangaiak, oposizio fase guztian lortutako guztirako puntuazioa batuta, nahitaezko ariketa kanporatzaileetatik lehenengoa edo, ariketa bakarra izanez gero, lehenengo zatia bakarrik gainditu dutenen zerrenda bukatu arte.”

Bigarrena. Aldatzea Arabako Foru Aldundiko lan poltsak arautzen dituen apirilaren 11ko 245/2018 Foru Aginduaren bidez aldatu zen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduaren eranskineko bosgarren artikuluko azken apartatua:

“2007ko enplegu publikoaren eskaintza baino lehenagoko lan poltsa guztiak baliorik gabeak izango dira.

Hirugarrena. Foru agindu hau indarrean jarriko da onartu ondorengo egunean, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR